

**Helburuak:**

- Irakurritako elkarrizketak laburtu ondoren, elkarri kontatzea.
- Albisteak irakurri eta elkarri kontatzea.
- Entzundako galderei erantzunak prestatu eta azaltzea.

**Zertan den:**

Unitate honetan ikasleek Arartekoaren instituzioa zertan den ezagutuko dute. Lehen atalean, egoera bat abiapuntu hartuta, euren esperientziaz hitz egingo dute eta azken bi Arratekoei egindako elkarrizketa bana irakurri eta elkarri kontatu behar dizkiote. Bigarren atalean, Arartekoaren memoriatik jasotako hainbat jardun kontatuko dizkiote elkarri, eta horietatik ondorioztatuko dute zein diren Arratekoaren eginkizunak. Hirugarrenean, azkenik, herritarrek egindako galderei erantzun egokiak prestatuko dizkiete, Arartekoaren rola eginez.

**Prozedura**

## 1

**Arazoak konpontzeko artekaria****Atazaurrea: bideo-pasartea ikusi eta nork bere iritzia eta esperientzia aurkeztu (10')**

- Telebistako humorezko irudiek<sup>1</sup> (DVD 17.1.) hizpide emango diete ikasleei, liburuko galderekin batera.

**Ikaslearen liburua**

- Antzeko egoerak bizitzea egokitu al zaizu?
- Normala iruditzen al zaizu horrelako jokabideak izatea herri-langileen artean?
- Zer egin dezake herritarrek horrelako egoera baten aurrean?
- Ezagutzen al duzu Arartekoa izeneko erakundea? Inolako esperientziarik izan al duzu? Edo beste inorenaren berririk?
- Ezagutzen al duzu Arartekoa den edo izandakoaren izenik?

**Zuzenketa-orria**

Juan San Martin	1989-03-02/1994-03-08
Xabier Markiegi	1995-03-03/2000-09-11
Mertxe Agundez	2000-09-11/2004-06-18
Iñigo Lamarka	2004-06-18/

**Ataza: elkarrizketa irakurri eta elkarri kontatu (45')**

- Bi taldetan jarrita, azken bi Arratekoei egindako elkarrizketa bana<sup>2</sup> (I. eranskina), irakurriko dute.
- Ikaskideei kontatu behar diete elkarrizketak dioena. Horretarako, hainbat erabaki hartu behar dituzte lehenik: nola aurkeztu behar dieten elkarrizketa (galdera bakoitzaren atzetik erantzuna edo bestelako laburpenen bat), bakar batek aurkeztu behar duen edo bakoitzak zati bat aurkeztu behar duen eta abar.

**Feedbacka: erabilitako estrategiez gogoeta egin (10')**

- Entzuten ari direnek behar beste galdera egin ditzakete, ongi ulertu dutela ziurtatzeko.

<sup>1</sup> TRICICLE: *Superjustino*, Dinamita, (DB 642), ETB, 1999.

<sup>2</sup> AGUNDEZ, Mertxe: "Posiblearen eta egin nahi dugunaren artea da politika", in Argia, 1.947 (2004). LAMARKA, Iñigo: "Matxismoa oso bizirik dago", in Aizu, 291 (2004).

### Gramatika eta diskurtsoa: graduatzaileak (15')

- Elkarrizketetatik ateratako hainbat esaldi dituzte euren liburuan, hutsuneak betetzeko hainbat aukerarekin. Hutsuneak aukeretako bakoitzarekin beteta esanahia zertan aldatzen den adierazi behar dute.

Ikaslearen liburua		
Gobernuaren jarrerak ez zuen	lagundu.	asko apenas batere izugarri
Erakundeen arteko koordinazioak	izan behar du.	ona hobe onena
Gure gizartean hiritar	ahulezia egoeran daude.	asko gehienak denak batzuk
Administrazio gune batzuk prozesuan.	atzeratuta daude euskararen normalizazio	oso erabat zertxobait nahikoa
Gizarte zaratsu batean bizi gara, eta ez diogu	elkarri entzuten.	gehiegi kasik batere ia-ia
Justizia, Ertzaintza eta Osakidetza daude	.	atzeratuta atzeratu atzeratuago

- Oharra:** Aukeran eskaintzen diren hitzak graduatzaileak dira, eta bat erabili edo bestea erabili esanahia nabarmen aldatzen da. Ikasleen mailaren arabera, agian, aurkezpen sakonagoa mereziko luke gaiak. Irakasleak erabakiko du oinarritzko aurkezpena<sup>3</sup> edo sakonagoa<sup>4</sup> egitea.

## 2<sup>5</sup>

### Zertarako?

#### Atazaurrea: Arartekoaren eginkizunak aurreikusi (10')

- Ikasleek euren liburuan bi herritarrek egindako erreklamazioak irakurri eta Arartekoaren eginkizunak zein izan daitezkeen aurreikusi behar dute eta ebatzi ea eginkizun horiek justizia arloari soilik dagozkion.

Ikaslearen liburua
Herritar batek Arartekoarengana jo zuen kexatzera Portugaleteko Erregistro Zibileko funtzionario batek eman zion tratuaengatik. Kontatzen zuenarengatik, ezkontza hitzarmenen inskribapena eskatu behar zuenez, lanean baimena eskatu behar izan zuen. Lanetik ahalik eta denborarik gutxien alde egiteko, erregistroaren bulegora 08:30ean joan zen, eta atean zain egon zen, lehenengoa izateko. Geroxeago, 09:00etan, erregistroa zabaldu zutenean eta funtzionarioarengana joan zenean, epaiketak zituela eta ezin ziola jaramonik egin esan zion. Herritarrak adierazi zion beste egun batean itzultzeko oso zaila zeukala, baina funtzionarioak erantzun zion <i>berak ez zeukala errurik Eusko Jaurlaritzak langile gehiago ez jartzeagatik</i> eta, beraz, <i>ez zuela eskatutakoa egingo</i> , eta alferrik ari zela protestatzen. Azkenean, erreklamaziogileak beste egun batean itzuli behar izan zuen erregistro zibilera.

<sup>3</sup> ALBERDI, Andres: *Eskola gramatika. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*, Ostadar, 1996, 128-129.

<sup>4</sup> ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi: *Euskal gramatika osoa*, Didaktiker, 2000, 265-299.

Herritar batek Arartekoarengana jo zuen Burgoseko Zigor arloko epaitegi batek bere nortasunaren gaineko akatsak eragin zizkion traba eta kalte nabarmenen berri ematera. Epaitegiak kexagilearen finka bat bahitzeko agindua eman zuen, epai hura bere izen eta deitura berberak zituen beste pertsona bati zegokionean. Akats horrengatik abokatu bat hartu behar izan zuen eta bost hilabetez itxaron, epaitegiak beste auto baten bidez akatsa zuzendu zuen arte. Erreklamaziogileak zioen, bere ustez, hutsegite hura erraz saihets zitekeela, zigortutako beste pertsonaren nortasunaren beste datu batzuk jaso izan balira, esaterako, ENA zenbakia.

### Ataza: Arartekoaren jardueri buruzko albisteak irakurri eta elkarri kontatu (35')

- Ikasleak binaka jarrita, irakasleak Arartekoaren 2003ko memoriatik jasotako jarduera<sup>6</sup> bana (**II. eranskina**) irakurraraziko die, ondoren, ikaskideei aurkez diezaieten. Bikoteak egokitu zaion jardueraren aurkezpena prestatuko du, liburuan duten gidoiari jarraiki.

**Ikaslearen liburua**

- Nork aurkeztu zuen?
- Noren kontra aurkeztu zuen erreklamazioa?
- Zein izan zen erreklamazioa?
- Zein urrats eman zituen Arartekoak?
- Zein izan zen ondorioa?
- Arartekoak inolako gomendiorik eman al zuen?

### Feedbacka: aurkezpenak baloratu (10')

- Denon artean baloratuko dituzte aurkezpenak, euren liburuko galderen (irizpideen) laguntzaz.

**Ikaslearen liburua**

- Ongi ulertu al dira aurkeztutako jarduerak?
- Argiago al daude orain Arartekoaren egitekoak?
- Zertarako jo Arartekora?
- Zer egiten du Arartekoak?
- Noiz jo Arartekora?

## 3

### Zeuren Ararteko?

#### Ataza: egoerak entzun eta aurreikuspenak egin (25')

- Bi taldetan banatuta, irratsaio batean bi herritarrek Arartekoari aurkeztutako galdera bana<sup>7, 8</sup> (**CDaren 23. eta 24. pistak: galderak**) entzungo dute ikasleek. Ondoren, Ararteko balira bezala, herritarrari emango lioketen erantzuna prestatu behar dute, ahalik eta modurik argi eta zehatzenean. Beraz, eztabaidatu eta, jarraian, ideiak argi ordenatuko dituzte.
- Prestatutako erantzuna aurkeztuko diete ikaskideei. Ikaskideon azalpena entzunda, herritarren galdera zein zen asmatzen ahaleginduko dira.

#### Feedbacka: aurreikuspenak egiaztatu (15')

- Osorik (**CDaren 23. eta 24. pistak: erantzunak**) entzungo dituzte herritarren galderak eta Arartekoak emandako erantzunak: zein ziren herritarren galderak egiaztatzeko eta zenbateraino datozen bat alderatzeko.

<sup>6</sup> Ararteko, Eusko Legebiltzarrari txostena, 2003ko laburpena, 6. zenb., 2004.

<sup>7</sup> LAMARKA, Iñigo: Akademia baten iruzurraz kexua, (DB 5674), Euskadi Irratia, Mezularia, 2004.

<sup>8</sup> LAMARKA, Iñigo: Arartekoaren zeregina, (DB 5673), Euskadi Irratia, Mezularia, 2004.

## TRANSKRIPZIOAK

### DVD 17.1.<sup>9</sup>

Iraupena: 1' 38''

- Bezeroa:** Ejem... Ejem...
- Funtzionaria 1:** Eta primeran geratzen zitzaidan hau, neska!
- Funtzionaria 2:** Eta prezioa, zer? Oso garestia, noski...
- Funtzionaria 1:** Bai, zeren...
- Bezeroa:** Barkatu!
- Funtzionaria 1:** Oso garestia...
- Bezeroa:** Barkatu!
- Funtzionaria 2:** Zu berriro ere?
- Bezeroa:** Zera... Presaka naiz, eta...
- Funtzionaria 2:** Lanpetuta gaude.
- Bezeroa:** Ongi.
- Funtzionaria 1:** Badakit non dauzkaten merezi duten merkealdiak.
- Bezeroa:** Aizu, barkatu! Barkatu!
- Funtzionaria 1:** Denboraldiko arropak...
- Bezeroa:** Aizu, barkatu! Barkatu!
- Funtzionaria 2:** Zer gertatzen zaizu zuri, ordea?
- Bezeroa:** Ez... Aspalditik nago hemen, eta...
- Funtzionaria 2:** Eta zer, eh, zer uste duzu, zuretzat bakarrik lan egiten duela Administrazioak?
- Bezeroa:** Ez, ez.
- Funtzionaria 2:** Besterik ez genuen behar! Itxaron eta atendituko zaitugu.
- Funtzionaria 1:** Esaten ari ginena...
- Superjustino:** Andereño, mesedez!
- Bezeroa:** Superjustino!
- Funtzionaria 2:** Itxaron zure txanda iritsi arte.
- Superjustino:** Zergatik hitz egiten didazu hain zakar?
- Funtzionaria 2:** Aizu, eh, nik nahi dudana bezala hitz egiten dut, eh?
- Superjustino:** Zuk ezin duzu nahi duzun bezala hitz egin! Zuk jendearen aurrean lan egiten dutenek hitz egin behar duten bezala hitz egin behar duzu.
- Funtzionaria 2:** Eta nondik atera da hau? Zer uste duzu zarela, giza-konzientziaren Kalkutako Ama Teresa?
- Superjustino:** Amorratuta bezala hitz egin behar diozula jendeari dio zure kontratuak, ala?
- Funtzionaria 2:** Amo... Zer?
- Superjustino:** Oihuka, aurpegi txarrarekin... Ipini ezazu hortzetako pasta piska bat jendea gehiago beldurtzeko.
- Bezeroa:** Hori da eta, Superjustino!
- Funtzionaria 1:** Aizan, ni banoan.
- Funtzionaria 2:** Bahoala? Baina...
- Superjustino:** Zergatik atera zenuen argazkia barrez gero jendeari gargola muturrarekin erantzuteko?
- Funtzionaria 2:** Aizu, ordaintzen didatenagatik, nahi dudana aurpegia jarriko dut.
- Superjustino:** Oker zaude, zeren, ordaintzen dizutena ordaintzen dizutela, hiritarraren gidari izateko ordaintzen zaizu, Administrazioaren labirintoan bidea erakusten dion gurua. Zure lantegia ez da lantegia, misio bat da. Ulertu duzu? Ala krokisa egitea nahi duzu?
- Funtzionaria 2:** Ez, ez, ulertu dut.

<sup>9</sup> TRICICLE: *Superjustino*, Dinamita, (DB 642), ETB, 1999.

**Superjustino:** Ba... Orain eskatu barkamena jaunari, eta irribarretsu eta gozo-gozo saiatu arazoa konpontzen denbora galdu arazi gabe. Superjustino, ezintasunaren eta ergelkeriaren aurkako herriaren ahotsa!!!

## CDaren 23. pista<sup>10</sup>

**Iraupena: 2' 53"**

### **GALDERA**

**Esataria:** Ezer baino lehenago gaur bertan jaso dugun e-mail baten berri eman nahi nizuke, eta honela dio entzule honek, Xabier izena du: "Atzo arratsean entzun nizuen gaur Iñigo Lamarka elkarrizketatzekotan zaretela, eta galderak bidaltzeko posta elektronikoa ere eman zenuten, baina ez nuen gogoan jaso. Horrexegatik, zuen web orrian aurkitu dudan hau baliatzea deliberatu dut. Eskertuko dizuet, ahal izatera, honako galdera hauek egitea". Eta galderak dira...Guk, egia esan, tarte hau estreinatu genuenean, saiatu ginen galdera hauei erantzuten, baina norbaitek ez du argi izango eta, akaso, komeni da argitzea, e? "Arartekoa pertsona bat da ala erakunde bat da, noren mendean dago edo nori eman behar dio kontu egiten duenaz eta zein dira Arartekoaren eginkizun zehatzak" Bueno, hau guztia bi hitzetan esatea ez da erraza izango, ezta?

### **ERANTZUNA**

**Arartekoa:** Beno, lau hitzetan saiatuko naiz.

**Esataria:** Baina ea!

**Arartekoa:** Bueno, da erakunde bat. Erakundean berrogei lagun ari gara lanean, baina erakundearen buruak ere Ararteko du izena. Beraz, ez da bereizten erakundearen izena eta erakunde buruaren izena. Erakunde burua, Arartekoa, Eusko Legebiltzarrak aukeratu behar du hiru bosteneko gehiengoz eta, ostean, ondokoa izendatzen du eta, bueno, ba, bere ekipoa, bai? Zeintzuk diren bere, nori eman behar dion kontu? Bueno, beraz, Eusko Legebiltzarrari. Eusko Legebiltzarrak aukeratutako, bueno, sortutako erakunde bat da eta aukeratutako kargu bat eta Eusko Legebiltzarraren esanetara dago, Eusko Legebiltzarraren komisionatu bat da. Eta bere zeregina zein du? Euskal administrazio publikoak, publikoen zeregina kontrolatzea, legediaren barruan egin dezaten beren lana, eta gizon-emakumeen eskubideak behar bezala, ba, babestu eta errespetatu ditzaten. Euskal administrazio publikoak esaten dudanean, ari naiz udal, foru aldundi eta Eusko Jaurlaritzaz eta beraien, ba, beraiekin lotuta dauden erakunde guztiez. Oro har ere badu giza eskubideak defendatzeko ahalmena, ahalmen abstraktua, baina ahalmen hori zehazten da, esan bezala, ba, kexuak tramitatzeko orduan euskal administrazio batek egindako jokabide baten aurrean. Baina nik indartu nahi dut giza eskubideen defentsaren alor orokor horretan gizarte sentsibilizazioa, giza eskubideen aldeko kultura, ba, hedatzea, errotzea, ba, gizarte balio-sisteman. Bueno, orduan, ez dakit gehiegi laburtu ote dudan, baina, bi hitzetan behintzat, ideia orokor bat izatearren, nik uste dut hortik abiatu gaitezkeela.

**Esataria:** Bai, eta komeni da, akaso, argitzea erakunde publikoek, ba, hiritar oinezko arruntoi, ezta? Gure eskubideak urratzen badituzte, orduan jo behar dugula Arartekoarengana, ez edozeinek urratzen baditu. Eta hori komeni da, ze batzuetan Arratekoari eskatzen dizkiogu, akaso, eskatu behar ez dizkiogun gauzak.

---

<sup>10</sup> LAMARKA, Iñigo: *Arartekoaren zeregina*, (DB 5673), Euskadi Irratia, Mezularia, 2004.

## CDaren 24. pista<sup>11</sup>

Iraupena: 2' 22''

### GALDERA

Esataria: Jaso dugunen artean mezu hau dago. Entzun dezagun.

Entzulea: Nik, e, bueno, akademia batean apuntatu nintzen bere garaian, oposaketa batzuk zirela-eta. Eta eskaini zidaten dena oso polita, dena oso ederra. Egongo zela han tutore bat argi eta garbi zekiena nire oposaketako gaitegia, eta apunteak emango zizkidatela. Eta, bueno, pagatu nuen, apuntatu nintzen, eta azkenean, azkenerako, apunteak neronek bilatu behar izan nituen, eta han ez zegoen inor gaiaz zekienik eta neronek neure kontura egin behar izan nituen gauzak. Akademia hau Adoz akademia da eta, bueno, ba, erreklamazioa ere egin zuen, eta esan zidaten ezetz, ez nuela frogarik horrena, eta...

Esataria: Bueno, horixe da entzule honen kezka. Honi ezin diozu erantzun?

### ERANTZUNA

Arartekoa: Uste dut, zoritxarrez, ezetz.

Esataria: Ezetz.

Arartekoa: Ze, klaro, guk parte hartzen dugu beti administrazio publiko, euskal administrazio publiko bat tartean dagoenean, herritar batek kexua duenean euskal administrazio publiko batekiko. Kasu honetan nik aholkatuko nioke, bueno, kexua aurkeztu diezaiola Eusko Jaurlaritzak duen kontsumo-zerbitzu batean, ze horrek bai kontsumitzaile... Kasu honetan akademia nik uste dut pribatua dela. Ze, klaro, hori da beste kontua. Pribatua ez balitz, publikoa balitz, orduan bai, jakina, gure eskuduntzapean egongo litzatekeela, edo-eta nolabaiteko konzertazio bat balu euskal administrazio publiko batekin, orduan ere bai. Baina edozein modutara, esan bezala, kexua pribatua baldin bada, kexua aurkeztu dezala, zera, kontsumo, bueno, Eusko Jaurlaritzak kontsumitzaileentzat sortua duen zerbitzu baten aurrean. Eta elementu publiko bat egongo balitz, eman dezagun akademia horrek baduela nolabaiteko hitzarmen bat edo, eman dezagun, e? ba, zera, Hezkuntza Sailarekin edo, orduan, Hezkuntza Sailari egin beharko lioke lehenego kexua, eta ez balu behar bezalako erantzuna emango, orduan sartuko ginateke gu; alegia, administrazio publikoak eskuduntza baldin badu kasu horretan, behar bezalako erantzuna eman ez diolako.

---

<sup>11</sup> LAMARKA, Iñigo: *Akademia baten iruzurraz kexua*, (DB 5674), Euskadi Irratia, Mezularia, 2004.

## Mertxe Agundez: «Posiblearen eta egin nahi dugunaren artea da politika»<sup>12</sup>



Bilbon jaioa. Abokatu. Ezkondua. Hiru seme-alaben ama. 1977tik 1995era bitartean, gai laboraletan, dibortzio eta abortu auzietan aritu zen. Orain bederatzi urte Ararteko erakundean hartu zuen konpromisoa arduraz bete duela esan digu. Aurki agur esango dio jarduneko ararteko karguari, garai politiko ezegonkor honetan egonkortasuna bermatzen saiatu izanaren ustearekin.

Mertxe Agundezek, Xabier Markiegi arartekoaren albokoa lau urtez izan ostean, ez zuen uste beste horrenbeste denbora -1999tik 2004ra- jarduneko ararteko karguan emango zuenik: «Izan ere, inork ez zuen espero alderdi politikoen arteko desadostasunak hainbeste denbora iraungo zuenik. Akordio ezak ez dio instituzioari lagundu, alabaina, trantsizioko aldi honetan, arartekoaren hutsunea bete dudalakoan nago. Pertsonalki, jende ahulenen arazoak konpontzen ahalegintzeak, kolektibo ahulen eskubideen alde lan egiteak, haien senideek dituzten beharrak betetzeak aberastu nau» esan digu solaskideak.

Gizarteko talde boluntarioek instituzio honi ekartzen dioten laguntza biziki eskertu nahi du Mertxe Agundezek: «Gure lana administrazioa limurtzea eta konbentzitzea da. Administrazioa legeari atxiki behar zaio. Agintari bati kexa bat helarazten bazaio, ez du nik eskatu diodalako bete behar, legea bete behar duelako baizik. Hartara, ageriko nahiz itxikeriako egoeren aurrean borrokatzea gogorra da. Kexa aurkeztu dizuten pertsonen aurrean beren eskubidea bete ez izateak kezkatzen zaitu. Sosegurik eza ere bizitzen da karguan, jakina».

### **Zer eman dizu zure jarduerak?**

Mundu hobetoago bat posible dela erakutsi dit. Zentzu honetan, demokraziara trantsizio garaiko ilusioa berreskuratu behar dugu. Nik frankismo garaian ikasi nuen, presio gogor baten pean bizi ginen, lege oso diskriminatzaileak zeudelarik. Garai haiek ez ziren errazak, ez ziguten ezer muxu-truk ematen, baina hobetzeko gogor aritzen ginen. Gaur egunera etorrira, sektore eta kolektibo ahulen aldeko lanetan beti ere, jarduneko ararteko karguan nire harri koskorra ekartzen saiatu naiz.

### **Gizartearen kontzientzia kritikoa izana sentitu al duzu inoiz?**

Hein batean bai. Eskubideen betebeharra etengabe gogoratzen ari zarelako. Hala ere, eskubide horiek ez dira nireak edo Arartekoarenak, legeak eskaintzen dituenak baizik. Legearen barruan aukera ezberdinak daude, baina beti badago bat jendearen eskubideak egokiago betetzen dituenak. Kolektibo ahulen kasuetan bereziki.

### **Zein ezaugarri behar du ararteko batek?**

Jendeari entzuten jakitea ezaugarri funtsezkoa da. Gizarte zarzatsa batean bizi gara, eta ia-ia ez diogu elkarri entzuten. Independentziaren irizpidea, justiziaren sen primarioa eta sen ona izatea ere beharrezkoak dira.

### **Gehitu -gay eta lesbianen- elkarteko kide Iñigo Lamarca ararteko izan ahal izateak zerbait adierazten al du zure ustez?**

<sup>12</sup> AGUNDEZ, Mertxe: "Posiblearen eta egin nahi dugunaren artea da politika", *in* Argia, 1.947 (2004).

Nire alabetako batek berria ezagutzean "ama!, kolektibo horren eskubideen alde borrokatutakoa zara zu" esan zidan. «Jakina» esan nion. Arartekoa giza generoaren perspektiban kokatzen ahalegindu naiz. Izendatzen ez dena ez omen da "existitzen". Ez da egia, noski. Giza errealitateek ez diote beren izateari uzten ezkutuan direlako. Kolektibo hori ez zen zuzenbidearen subjektu politiko gisa agertzen eta ni – Arartekotik- ager dadin saiatu naiz. Iñigo Lamarcaren merituetako bat «existitzen» den kolektibo baten aitzindaria izatea da. Eragozpen askoren aurka aritu da, kolektiboari eskubide guztiak ezagutu behar zaizkio. Zortetik onena desiratzen diot.

### **Zer gomendio emango zenioke?**

Bera izatea, ausarta izatea, beretzat ,ustez, ona dena besteentzat ere erdiesten ahalegintzea...

### **Arartekoan sartzean gizarteaz zenuen ikusmoldea eta orain duzuna bera al da?**

Gizartea denok kritikatzeko dugu, baina, nahitaez, denok kontsumistak gara. Orain 25 urte, adibidez, bakar batzuek baino ez zuten autoa. Egun berriz? Gaur Interneten adibidea dugu. Hori guztia hor dago eta saihestezina da. Kontua baliabideak gure zerbitzura jartzea da eta ez gu haien zerbitzura. Bestela, gizarte mota honetan gero eta bakanduagoak biziko gara eta elkarbizitza are zailagoa bihurtuko zaigu. Hori da gizarteaz dudaren ikusmoldearen bilakaera.

### **Politikaz pertzepzio bera al duzu, halaber?**

Politika posiblearen artea ei da. Nik egin nahi dugunaren artea ere badela esan ohi dut. Hau da, ongi egitearen artea, utopia dena nahi baduzu. Politikan urte gogorak izan dira, gure politika ez baitago "normalizatuta". Horrek eragina du gure zereginean. Baina gizarte modernoago eta demokratikoago bat lortu nahi badugu denok parte izan behar dugu politikan, eta zeregin horretan politikak kolektibo guztien parte-hartzea bermatu du.

### **Klase politikoak kolektibo horien guztien arazoetan erreparatzen al du?**

Baietz uste dut. Baina, politikaren funtsa aurrekontuetan dago. Printzipioen aldarrikapen asko egin dezakegu, baina gaiak gai, gai bakoitzak gobernuen aurrekontuetan eta agendetan hartzen duen tokiak politikoen sentsibilitateen maila ematen digu aditzera, eta ez dezagun ahantz politikoak guk hautatzen ditugula.

### **EAEko espetxeetan "inplikazio eskasa eta gune ilunak" daudela ohartarazi duzu. Zer iradokitzen digu egoera horrek?**

Arartekoaren lema hau da: "Pertsonen eskubideak ez dira espetxearen atarian bukatzen". Gure senitarteko bati espetxera joatea tokatzen bazaio, espetxeen egoera ona exijituko dugu. Adibide hurbilago bat: ez dugu ospitalera joan nahi, baina joan behar dugunean egoki egotea nahi dugu. EAEko espetxeei buruzko lehen Txostena 1996an egin genuen ,Xabier Markiegi arartekoa izaki, Eusko Jaurlaritzaren eta Espetxeetako Zuzendaritzaren artean egindako itun baten barruan. Basauri, Langraitz eta Martuteneko azpiegiturak Estatuko zaharrenak zirela adierazi genuen. Preso metaketa izugarria zen. Harrezkero, besteak beste, hainbat preso atera zen kartzelatik. Baina egiturek are zaharragoak izaten jarraitzen dute.

Txostena idatzi ostean espetxetako hainbat transferentzia egin ziren. Guk espetxea presoentzako azken zokoa dela diogu, zigorraren ordezkotik alternatiba bilatu behar

dugula. Txostenak filosofia hori bildu zuen eta aurrera egin zen nolabait. Azken urteetan, ordea, EAEko eta Estatuko harreman instituzionalak apurtu zirenez gero, espetxe gaiak arduratzen ziren erakundeen artean zailtasun handiagoak izan dira. Txostenak sinatzen dira, baina gero horiek betetzea ez da hain sinplea.

### **Botere publikoek, benetan, espetxeen alternatiba bat nahi al dute?**

Konstituzioaren arabera, zigorrak presoek birgizarteratzeko bideratu behar dira. Gu zentzu horretan ari gara lanean, baina komenigarria da ere hainbat gauza gogoratzea: ETAk Martuteneko psikologoa eta Langraitzeko erizain bat hil zituen. Horiek guztiak ez dira hutsean pasatzen. Espetxeetan ari den jende asko ETAREN mehatxupean dago. Hainbat zerbitzu bertan behera geratu dira ETAREN jardun terrorista dela eta. Hori ere esan behar da. Birgizarteratzeko planak badaude eta asko aurreratu da, baina terrorismoak ere gogor geldiarazi ditu planak. Jakina, PPren Gobernuaren jarrerak ez zuen batere lagundu, alderantziz. Baina Konstituzioak birgizarteratzea ikusten du, eta berau aldatzen ez den bitartean betetzen ahalegindu behar dugu, gure eskubideak bermatu behar ditugu. Zentzu horretan PPK terrorismoaren une latzetan egin dituen hainbat adierazpen ez dira sartzen Konstituzioaren arauetan. Dena dela ere, espetxeen alternatiba, neurri ezberdinetan, denon esku dago: Legebiltzarraren, Gobernuaren, administrazioaren eta gizartearen eta kolektiboaren esku. Egitura modernoagoak eta erakundeen arteko kolaborazio sendoago baten bitartez, zigorraren neurria finkatuago batez, espetxe hobeago bat izango genuke.

### **Bestalde, nola ikusten dituzu emakumeak jasaten ari diren gizonen erasoak?**

Emakumeen eskubideen urraketa izugarria da, Arartekoan emakumearen defentsan ari gara. Erakundeen arteko koordinazioak hobeagoa izan behar du. Arartekoaren txostena, euskal administrazioetik generoaren biolentziari ematen ari zitzaion erantzunaren perspektibatik egin dago, harreman afektibo bat puskatu denean ematen den biolentziari buruzkoa. Orain arte zenbait gauza egin bada ere, laguntza ez da erabatekoa izan. Gure txostenean erasoak ekiditeko hamar neurri aipatzen ditugu. Trantsizioan emakumea diskriminatzen zuten hainbat lege bertan behera geratu ziren. Legearen aldaketa beharrezkoa izan da, baina ez nahikoa. Emakume batek bere isiltasuna hausten duenean, arduradun publiko guztiek prest izan behar dute laguntzeko. Emakume horrek ezin du erietxearen, udaltzaingoraren eta abarren artean noraezean ibili, aitzitik, erantzun bizkorrak behar ditu, eta ez bakarrik erasoak jasan duenean. Hasteko, jipoituak direnei egoera salatu dezaten lagundu behar zaie. Hau da, duen arazotik ateratzeko autonomia bat izaten ùberen lana izaten, kasu lagundu behar zaie. Bizitzeko eskubideak ari gara, baina lehenik emakumearen osasunaz eta segurtasunaz arduratu behar dugu, bere osotasun psikikoaz. Legeak lege, mentalitateak aldatu behar ditugu.

### **«EAEko kartzelen argazkia ez dela gizarte moderno batena" esana duzu. Emakumeen aurkako gizonen jazarpenek zein argazki mota erakusten dute?**

Gizarteak bere presoak nola tratatzen dituen, horra bere argazkietako bat. Emakumeen aurkako erasoak kasuan, berdin. Duela 20 urte, demokrazian honezkero, ez genuen bikotekideek horrenbeste emakume hilko zutenik uste. Hori ere gure gizartearen argazkietako bat da. Argazkia txarra da eta ezabatzeko lanean segitu behar dugu.

### **Azkenik, herritar arrunta, itxuraz ahul ez dena, arduratzen ote da bere eskubideez?**

Herritarrek balore eta eskubideen erabilpenean hezi behar dute. Nork jartzen ditu eskubideak praktikan? Ezagutzen dituenak. Ezagutzen ez dituenak edota gaitasun gutxiago duenak arazo gehiago dauka. Zapalduagoa den jendeak are zailago du horiek aldarrikatzea. Arartekotik horretan ari gara, ez haiek ezin dutelako, baizik haiek zailago dutelako beren eskubideak erabiltzea. Guk gizarte aktiboago bat nahi dugu. Kontua ez da bakarrik politikariak hautatzea, haiekin elkarrizketatu behar dutela esaten diegu herritarrei. Herritarrek politikariei hitza eta beren eskubideak betetzea exijitu behar diete.

## **“Matxismoa oso bizirik dago” Iñigo Lamarka<sup>13</sup>**



Donostiarra, 45 urte. Ekainaz geroztik Arartekoa da Iñigo Lamarka: EAEko herritarrek bertako Administrazioen jardueragatik aurkezten dituzten kexak jaso eta bideratzen ditu. Ararteko karguaz jabetu aurretik gay mugimenduan buru-belarri ibili izan da Lamarka. Zuzenbidean lizentziatua, legelari lanetan aritu zen Gipuzkoako Batzar Nagusietan, eta azken urteotan Gehitu Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkarteko lehendakaria izan da. Gay nauzu liburuan (Alberdania) eman zuen bere homosexualitatearen testigantza.

**Ana Unanue. Argazkiak: Amaia Zabalo.**

### **Zein da EAEko herritarren kexarik ohikoena?**

Ez dago nabarmen gailentzen den kexarik. Kexa asko sortzen dituzte trafikoak, udal eta foru zergek, hezkuntzak, elbarrituek, kartzeletako egoerak eta hirigintzak. Ingurumenari buruzko gaiak orain arte ez dute hainbeste kexa eragin, baina nabarmen igotzen ari dira.

### **Eta zein da eskubide kontuetan babes gutxien duen giza-taldea?**

Egia esan, eskubideak erabat bermatuta dituzten hiritarrak gutxiengoa dira. Gure gizartean hiritar gehienak ahulezia egoeran daude, arrazoi bat dela edo bestea dela, eta ez dira eskubide guztien jabe. Egoera horretan daude, esate baterako, emakumeak, adin nagusiko pertsonak (batez ere menpekotasunen bat dutenak), etorkinak, elbarrituak, gay, lesbiana eta transexualak, presoak,... Presoena oso talde sentibera da, espetxeetan pertsona askoren eskubideak urratzen direlako.

### **Kartzela tresna egokia al da inoren jokaera zuzentzeko?**

Ikerketa ugari daude erakusten dutenak kartzelak, dauden horretan, ez dutela betetzen eduki beharko luketen helburu nagusia, alegia, espetxeratutako gizon-emakumeen bergizarteratzea. Ikerketek diotenez, espetxeetako egoera penagarria da eta kartzelak askotan delitu eskola bihurtzen dira. Batzuentzat kartzela zigorra da edo, are gehiago, mendekua. Heriotza-zigorra, adibidez, filosofia horren adierazgarria da. Ni ez nator bat filosofia horrekin. Nire ustez, espetxeen helburua bergizarteratzea da. Gure ordenamendu juridikoan ere jasota dago helburu hori, nahiz eta praktikan ez bete. Helburua betetzeko goitik behera aldatu beharko litzateke espetxeetako errealitatea.

### **Zure ustez, zein da gure herrian ematen den eskubide urraketa larriena?**

Hiritar multzo bat aipatzekotan, ETAREN biktimak aipatu beharko genituzke. Hiritar asko direlako mehatxupean bizi direnak eta urratzen diren eskubideak oso larriak direlako; hasteko, bizitza-eskubidea, gero askatasuna, eta osotasun moral eta psikikoa ere bai. Eskubide batzuk beste batzuk baino funtsezkoagoak dira. ETAK urratzen dituenak oso oinarritzkoak dira eta, horregatik, urraketa larriena horixe dela esango nuke.

### **Azkenaldian, ordea, ETAK baino biktima gehiago eragin ditu emakumeen aurkako indarkeriak. Zergatik ez dute horrenbeste kezka sortzen emakumeen hilketek?**

Arrazoi asko daude, seguruenik inportanteena ETAREN biolentziak dimentsio politikoa

<sup>13</sup> LAMARKA, Iñigo: “Matxismoa oso bizirik dago”, Aizu, 291 (2004).

duela, eta horrek oihartzun handiagoa ematen diola. Edonola ere, Arartekoak garbi dauka pertsona guztiek garrantzia berbera dutela. Nire lana guztion giza-eskubideak defendatzea da, salbuespenik eta bereizketarik gabe. Zoritxarrez, emakumeak mehatxupean bizi dira, ETaren biktimak bezala. Askotan biolentzia domestikoa deitzen zaio, baina nire iritziz ez da etxe barruko edo bikote barruko kontua. Sexu-indarkeria arazo soziala da, ia edozein emakume izan daitekeelako matxista-terrorista baten biktima une jakin batean.

### **Behatokiak hizkuntza eskubideak ez direla errespetatzen salatzen du urtero. Galdutzat jo behar dugu bataila hori?**

Ez, inola ere ez. EAEn euskara hizkuntza ofiziala da, gaztelaniarekin batera, eta hiritarrek eskubidea dute Administrazio Publikoekiko harremanetan euskara erabiltzeko. Egia da eskubide hori ez dela behar bezala bermatzen. Administrazio Publikoak ahalegin handia egin du azken urteotan, baina oraindik asko dago egiteko. Administrazioko gune batzuk nahikoa atzeratuta daude euskararen normalizazio prozesuan. Justizia, Ertzaintza eta Osakidetza daude atzeratuenak. Nik lehentasuna eman nahi diot euskal hiztunen eskubideen babesari; horregatik, **sail** horien euskalduntzea arintzea da nire helburuetako bat. Baina bada beste **alor** bat, saihestu behar ez duguna: hiritarren arteko harremanak. Euskararen erabilera herritarren artean eskas samarra da, jende asko dagoelako euskara ez dakiena eta dakiten askok errazago egiten dutelako gaztelaniaz. Helburua benetako elebitasuna litzateke, hiritar guztiek ezagutza maila bera izatea euskaraz eta gaztelaniaz. Hartara denok izango genuke aukeratzeko eskubidea.

### **Seguruago sentiarazi beharrean, poliziek eta ertzainek beldurra ematen didate. Norena da errua, nirea edo haiena?**

Poliziak ez datoz Martitzetik gu erasotzera. Azken finean, funtzio bat betetzen duten langileak dira. Arrazoi historikoak direla eta, Poliziaren irudi errepresiboa dago oraindik. Irudi hori zuzendu beharra dago. Ideala izango litzateke poliziarik gabeko gizartea, baina hori utopikoa denez, beste helburu bat markatu beharko dugu: poliziek herritarron askatasuna eta eskubideak babes ditzatela, hori delako bere eginkizuna.

### **Nola liteke bere burua demokratikotzat duen herri batean oraindik tortura existitzea?**

Tortura eta demokrazia bateraezinak dira. Bere burua demokratikotzat duen Estatu batek baliabide guztiak jarri beharko lituzke torturarik gerta ez dadin, eskubide urraketa bereziki larria delako. Tortura egon badago, eta ez dut nik esan; Nazio Batuen ordezkariak eta Amnesty International-ek esaten dute. Arazoa da oso zaila dela torturak epaitegietan frogatzea eta, ondorioz, zigortzea. Nire ustez, tortura eragozteko prebentzioa da eraginkorrena: galdeketak bideo-kameraz grabatu, atxilotuaren defentsa hobetu, lehen momentutik egon dadila medikuren bat,... Onena litzateke inkomunikazioa desagertzea, tortura gehienak inkomunikazio garaian gertatzen direlako.

### **Azken urteotan bi egunkari itxi eta alderdi politiko bat ilegalizatu dute Euskal Herrian. Normala al da?**

Ez da normala eta ez luke izan beharko. Oso salbuespenezkoa da egunkari bat ixtea, demokrazian adierazpen askatasuna funtsezkoa delako. Ararteko gisa egunkari bat ixtearen aurka nago, baina zerbait gehiago esateko sakonago aztertu beharko nuke kasu bakoitza.

### **Zer erakusten dute Alardearen inguruko istiluek?**

Matxismoa oraindik oso bizirik dagoela euskal gizartean eta beren burua oso aurreratutzat duten herrialdeetan. Gainera, ez dut uste Irunen edo Hondarribian

emakumeen partehartzearen aurka daudenak salbuespenak direnik. Nahiz eta azalean denak emakumeen eskubideen alde agertu, sakonean, barru-barruko jokabideetan matxismoak eta sexismoak uste baino indar handiagoa dute.

**Interneten irakurri dut: Ararteko honen meritu bakarra gay izatea da, horregatik aukeratu zuten. Heterosexual bati buruz esango lukete horrelakorik?**

Komentarioa guztiz homofoboa da. Homosexuala izatea diskriminazio arrazoia izan da historian zehar eta oraindik orain. Nire kasuan, zorionez, ez da oztopo izan Ararteko karguaz jabetzeko. Aukeratu nauten talde parlamentarioek ez dute kontuan hartu nire homosexualitatea, urte askotan gay eta lesbianen eskubideen alde aritu naizela baizik. Azken batean, giza-eskubideen mundua bat eta bakarra da, eta kolektibo baten eskubideen alde aritu izan denak uste dut meritu nahikoa duela herritar guztien defentsan aritzeko.

**Madrilgo Gobernuak homosexualen ezkontzak baimentzeko aurreproiektua onartu izana historikotzat jo du gay mugimenduak. Zergatik da historikoa?**

Batetik, diskriminazio historiko batekin bukatuko luke, homosexualok lege berdintasuna lortuko genukeelako. Eta, bestetik, oso garrantzitsua izan daiteke gizartearen balio sistema aldatzen hasteko. Azken batean, familia da gure gizarte antolamenduaren oinarrietako bat. Ezkontzeko eta familia bat osatzeko aitortzarekin batera, balio sozialak ere aldatzen joango lirake, eta espero dezagun matxismoa eta homofobia betiko desagertzea.

**Ahal bezain laster ezkonduko zarela iragarri duzu. Homosexuala ez bazina, ezkonduko zinateke?**

Ez dakit. Homosexuala izango ez banintz edo, hobeto esanda, homofobia existituko ez balitz, nire bizitza desberdina litzateke. Txiki-txikitatik baztertuta sentitu nintzen homofobiarengatik; horren aurrean balioetsi izan dut neure duintasuna, eta horrek bide jakin batetik eraman nau, aktibismoaren bidetik hain zuzen ere. Ezkontzearena ere bide horren barruan dago. Nire bikotekidea ere gay aktibista da, eta guretzat inportantea da homosexualitatea agerira ekartzea, normalizatze aldera. Horregatik, bioi oso modu naturalean atera zaigu ezkontzearena.

**Zein da Euskal Herriko hiririk erakargarriena gay batentzat?**

Bilbo. Oso bilbozalea naiz gaztetatik, eta ez gay naizelako bakarrik.

**KOLKOTIK**

**Zerk alaitzen dizu eguna?** Irribarre batek. **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**

Hipokrisiak. **Zerk lotsarazten zaitu?** Pertsona bati gustukoa dudala adierazteak. **Zerk beldurtzen zaitu?** Minak. **Zertaz zaude harro?** Ditudan lagunez. **Zer eskatzen diozu maitaleari?** Zintzoa izatea bere buruarekin eta nirekin. **Zer pertsonaia publiko miresten duzu?** Nelson Mandela. **Nor gonbidatuko zenuke afaltzera?** Bruce Springsteen, kantari bezala izugarri gustatzen zaidalako eta Bushen aurka egiten ari den kanpainarengatik. **Nora eramango zenuke?** Nire etxera. **Eta afaldu ondoren, zer?** Elkarrekin goxo-goxo egon. **Idazle bat:** Koldo Mitxelena. **Musikari bat:** Beethoven.

**Aktore bat:** Javier Bardem. **Hiri bat:** Bartzelona.

## ARARTEKOAK OFIZIOZKO ESPEDIENTE BATI EKIN ZION GASTEIZKO UDALAREN USTEZKO JARDUERA IRREGULAR BAT IKERTZEKO

Arartekoak ofiziozko espediente bat ireki zuen Udalaren jokaera ikertzeko, zenbait hedabidek emandako informazioaren arabera Gasteizko Udalaren gazteentzako etxebizitzabulegoak kudeatzen zituen alokairu-pisu batzuetan ezin zelako etorkinik maizter hartu, jabeek baldintza hori jarri baitzuten beren pisua alokagarri uzteko, eta bulegoak hala onartu. Erakunde hau beti arduratu da Gasteizera iritsitako etorkinek etxebizitza aurkitzeko dituzten arazoek. Horregatik, 2001ean Magrebeko etorkin talde batek etxebizitza bat alokatzeko zituzten zailtasunak azaldu zizkionean, Arartekoak erakunde desberdinetara jo zuen -Gasteizko Udalera, besteak beste- ahal zen neurrian beren eskumenak arazoa konpontzeko erabil zituzten. Hango hartan bagenekien aurkeztutako kezak ez zuela zerikusirik administrazio publikoren batek egindako irregulartasunekin, eta gure esku-hartzearen arrazoi bakarrak gizabidea eta gizarte arazoek konpondu beharra ziren. Horregatik, eta Gasteizko Udalak arazoa konpontzeko ahalgintza egin behar zirelako ustean, neurri sorta bat eskaini genion orientagarri. Baina 2003an, esan bezala, alarmak jo zuen, izan ere, etxebizitzaren alokairua errazteko asmoz sortutako udal zerbitzu batek atzeritarrak baztertu nahia onartzen omen zuen jabeengandik. Ikerketaren

emaitzak adierazten zuenez, ordea, solairuen poltsa kudeatzen duen fundazioak jo eta ke dihardu horrelako aurreiritziak eta susmo txarrak uzatzeko. Hala eta guztiz ere, uste

dugu Udalak baliabide gehiago bideratu beharko lituzkeela arazoa konpontzeko, eta ez duela inolako bazterkeria zantzurik onartu behar.



El Correoaren argazkia

## GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZEN MURRIZKETA GASTEIZEN

Gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzen dituzten zenbait herritarrek keza aurkeztu dute Arartekoaren aurrean, Gasteizko Udalak, laguntzaren bidez ematen duen diru kopurua murrizteaz gain, laguntza lortzeko mugak ezarri dizkielako 2003ko urriaren 31z geroztik eskatu dutenei. Neuria arazoitzeko, Udalak adierazi du ez zegoela behar beste diru eskaera guztiei ordura arte egiten zen bezala erantzuteko. Gizarte Premietarako Laguntza Gizarte Bazterketaren aurkako Legeak arautzen

dituen prestazioetako bat da, eta EAEko Aurrekontu Orokorretan aurreikusten diren baliabideak ezinbestekoak dira udalek onartu eta gauzatuko dituzten laguntzei begira, beraz, informazioa eskatu genien Eusko Jaurlaritzari eta Gasteizko Udalari, eta geroago Arabako Foru Aldundiari ere bai, azken horrek iragarria baitzuen berriro hasiko zela laguntza horietarako baliabideak ematen, ordura arte egin izan zuen bezala. Aurrekoaz gain, beste ofiziozko espediente bat abiarazi dugu, jakin nahi baitugu nolako

arazoak izan litzaketen pertsona asko 2004an GPLak berriro eskatuko balituzte Gasteizen, gerta litekeelako zailtasunak izatea lehenago ere hango egoiliarrek izan zirela frogatzeko eta eroldaturik egondako denbora tartea egiaztatzerako. Izan ere, laguntza murriztean, pertsona askok bere etxebizitza utzi behar izan zuten, ezin baitzuten ordaindu, eta horren ondorioz ere, bajatza agertu ziren erroldan, egoitzarik ez zutelako, hain zuzen.

## BAIMENIK GABEKO SALTOKI IBILTARI BATEKO SALGAIK ATZEMATEAN EZ ZIREN LEGEZ EZARRITAKO BERMEAK BETE

Gipuzkoako SOS Arrazakeria elkarteak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Donostiako Udaltzaingoak baimenik gabe salmenta ibiltarian ari ziren bi pertsonen atzemandako arropak itzul zitzaizkien; horretaz gain, erantzun argi bat jaso nahi zuen Udaltzaingotik, atzemandako salgaiak berreskuratzeko egin behar ziren izapideen berri lortu nahian elkarteak eskaera bat ezarria baitzuen udal poliziaren Erregistroan. Elkarteak kexu zen, halaber, komisario nagusiak ez zuelako bete

Mugikortasun eta Herri Bideetako zinegotzi eskuordeak helarazitako erabakia, hartutako janzkiak itzultzeko agintzen zuena. Kasuaren nondik norakoak aztertuz, Arartekoak uste du ez zirela bete legearen arabera salgaiak kautelaz atzematean begiratu behar ziren bermeak, eta beraz, atzematea ondorioz gabe utzi behar zela. Jakin genuenez, bestalde, Udalak isuna ezarri zien bi saltzaile ibiltari. Hori kontuan hartuz eta 1998an egindako gomendio orokorra gogoraraziz (Poliziaren

esku-hartzea baimenik gabeko salmenta kasuetan), gomendio bat luzatu genion Donostiako Udalari, atzemandako salgaiak bueltatu, saltzaileen aurkako zehapena bertan behera utzi, eta elkarte kexagileak Udaltzaingoaren Erregistroan aurkeztutako eskaerari erantzun ziezaion. Txosten hau bukatu beharrean dagoelarik, ez dakigu Udalak gomendioa onartu duen.

## DIRUZKO KALTE-ORDAINAK FRANKISMOAN ASKATASUNAZ GABETUTA EGON ZIREN PERTSONENTZAT

Frankismoan askatasunaz gabetuta egon zirenei diruzko kalte-ordainak aitorzen dizkien dekretuaren ondorioz zenbait kexa aurkeztu dizkiote Arartekoari. Kexak aurkezteko arrazoiak bi motatakoak izan dira: erreklamazioetan azaltzen denez, oso zaila da diktaduran presoentzako eremuetan egonaren frogak edo agiriak aurkitzea, eta bestalde, ezbaian jartzen da laguntzak jasotzeko ezarri den 65 urteko adin muga. Laguntzaren sustatzailea den Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak azaldu duenaren arabera, eskaerei 2004ko lehen hiruhilekoan emango zaie erabakia; prest agertu da, halaber, artxibo militarrek arakutzen

jarraitzeko, nahiz eta, horren ondorioz, eskatzailearen espetxeratzea agian dekretuaren epea agortutakoan egiaztatuko den. En estos casos, el Sailak adierazi duenez, hala gertatuko balitz, tresnak baliatuko lituzke pertsona horiek kalte-ordainak jaso ditzaten. Bide beretik, dekretuaren tramitazioa bukatu ondoren, sail horrek adin-mugarik ezartzen ez lukeen araudi bat aztertzeko asmoa du, betiere horretarako erabilgarri duen aurrekontua kontuan hartuz. Gure aldetik, aurreko guztia baloratu dugu, eta oraingoak baino helburu zabalagoak lituzkeen dekretu bat emateko iradokizuna luzatu diogu sail hori,

askatasunaren alde borrokatzeagatik errepresioa eta espetxeratzea jasan zutenek eta beren senideek ordaina jaso ahal izan dezaten, hain zuzen. Hala, bada, espero dugu Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak arazo horri buruz egin diogun iradokizuna kontuan har dezan, eta bere aurreikuspenek behar besteko diru kopurua izan dezaten erabilgarri aurrekontuetan.

## DIABETESA DUTEN IKASLEEN ZAINTZA

Arartekoari iritsitako kexa batek zioen, diabetesak jota eta eskola-adinean dauden haurren kasuan ez zegoen jarraibide multzo zehatzik, artapena arin eta segurua ziurtatuko zienik, haur horiek oraindik beren burua zaintzeko gai ez diren arren. Lehenagoko kexen ondorioz, bagenekien Hezkuntza Sailak bere gain hartua zuela ikasle horien beharrei erantzuteko ardura, eta erabakitzeke zegoela horrelako kasuetan jarraitu beharreko eredua, zehatzago, nori

zegokion, hezkuntza eremuan, berehalako laguntza zuzena emateko ardura. Arartekoak adierazi zuen, horrenbestez, administrazioak argitu behar zuela puntu hori, beti kontuan hartuz azken buruan erantzukizuna Sailari dagokiola. Emandako erantzunean, Sailak bere egiten zuten diabetesa duten haurren zaintza, eta berehalako zainketa zuzena irakasle-tutorearen esku uzten zuten. Horretaz gain, Osasun Sailarekin elkarlanean aitzeko aukera aztertzen zuten,

erabil daitezkeen artapen-jarraibideak argitzeko eta eskola eremuan behar diren osasun-zainketak ere zehazteko. Auzia bideraturik zegoela ikusirik, gure lana bukatutzat utzi genuen. Baina geroago jakin dugu, hedabideen bitartez, familia batzuek arazoak dituztela, oraindik ere, diabetesa duten haurrek eskolatzeke, eta berriro ekin diogu ofiziozko esku-hartzeari.

## GIPUZKOAKO LURRALDEAN EMANDAKO EHIZA-BAIMENEK LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOA URRATZEN ZUTEN

Bizkaiko ehiztari talde batek gugana jo zuen, Gipuzkoan ehiza aldia hastear egon arren, Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Sailak ez baitzion erantzunik eman ehiztari horiek basurdetarako egin zuten baimen-eskaerari. Taldeak adierazten zuen, era berean, sailak lehenago ere utzi zituela erantzunik gabe antzerako eskaerak. Izan ere, keixaren hariatik Nekazaritza eta Ingurumen Sailak igorritako informazioan ikusten zenez, sail hori isilaz baliatu zen keixagileen taldeak egindako beste eskaera batzuei ere erantzuteko. Gainera, ezetza eman zien batean, erakundea ez zen inolako arautan oinarritu horrela jokatzeko. Hortaz, eta kontuan harturik keixan aipatutako ehiza aldia bukatuta zegoela, gomendio bat helarazi genion Nekazaritza eta Ingurumen Sailari, erabakiak ehiza-

denboraldiak hasi aurretik hartu eta jakinaraz zitzan, bai ehizarako baimen-eskaerei erantzutean eta bai ezezko erantzunen aurkako helegiteez erabakitzean ere. Gomendatu genuen, era berean, ehizarako eskubideari ezartzen zaizkien mugak zein prozedurazko xedapenak arauen arabera izan daitezzen. Gomendio horiek onartu ziren arren, ez ziren bete ondorengo ehiza aldiari. Izan ere, denboraldia hastekoa zela, berriro ukatu zitzaieen baimen eskaera keixagilei, eta horren aurka aurkeztu zuten helegiteak ere ez zuten erantzunik jaso. Sailari bidali genion balorazioan azaldu genuenez, bere jokaera berraztertzen ez bazuen, lehen egindako bi gomendioak bete gabetzat joko genituen.



*El Correoaren argazkia*

## BILBOKO UDALAK OFIZIOZ EMANGO DITU BANKUAZ HELBIDERATUTAKO ERROLDAKO ORDAINAGIRIEN FROGAGIRIAK

Bilboko auzokide batek kexa bat helarazi zion Arartekoari, Udalak banku bidezko errolda ordainagiriekin darabilen sistema dela eta. Kexagileak zioenenez, behin zordunketa eginda, helbideratutako errolda-ordainagiri guztien sarrera bankuak bidaltzen zuten agiri batean ageri zen, baina ez ziren banan-banan zehatzen zerga-kontzeptuak. Ondorioz, zerga jakin bat (OHZ, estolderia-tasa, JEZ, TA Oren txartela...) ordaindu izanaren frogagiria eskuratzeko, zergadunak berari azko telefono zenbaki batera deituta eskatu behar zuten. Kexa jarri zuenaren ustez, bide hori ez zen zuzena, eta Udalak zerga bakoitzaren frogagiri osoa helarazi beharko luke, zergadunak eskatu gabe. Gainera, deia bera ere karga bat zen zergadunarentzat, zenbakia ez zelako doakoa eta ez zelako frogaturik geratzen eskaera eginda zegoela. Bilboko Udalarik informazioa eskatuta, azalpen zehatzak eman zizkigun darabilen sistemaren inguruan, eta azaldu zuen, halaber, ez ziela zerga-kontzeptuen inguruko daturik ematen bankuei isilpeko informazioa delako. Era berean, ez dago ordainagiri horiei uko egiterik, beraz, Udalaren iritziz, bankura bidaltzen duen agiria ordainketa-frogagiritzat har daiteke. Informazio guztia aztertutik, eta Bizkaia Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Erregelamenduan ezarritakoa kontuan harturik, Arartekoak gomendio bat helarazi dio Udalari, banku bidez kobratzen diren zergen ordainketa-frogagiriak ofizioz eman ditzan. Gomendioa onartu egin da.

## ERTZAINTZAK INSTITUTU BATEAN JARDUN ZUEN ZENTROKO ZUZENDARIAK EZER JAKIN GABE

Arartekoari aurkeztutako erreklamazioan, Bigarren Hezkuntzako institutu bateko zuzendaria kezu ageri zen bi ertzain institutuaren esparruan sartu zirelako bere baimenik gabe eta Hezkuntza Sailak ez zuelako ezer egin gertatutakoaren aurrean. Interesatuak gertakarietan esku hartu zuen, zuzendaria zelako, eta kezan azaltzen zuen ez, horren ondorioz Herrizaingo Sailak zehatze prozedura bat ireki zuen bere kontra, geroago ikastetxearen inguruetan iragarri gabe egindako manifestazio baten ustezko arduraduna izatea leporatuta. Arartekoak Hezkuntza Sailera jo zuen, eta bertan jakin zuenez, sail horrek ez zien erantzun formalik eman kezagileak aurkeztutako idazkiei, bai

ordea, nolabaiteko aholku juridikoak eman zehatze prozeduraren inguruan. Bildutako agiriei esker igartzen zenaren arabera, ertzainak institutuko patioan sartu ziren, eta interesatuak bera zentroko zuzendaria zela adierazi zien arren, ez zioten kasurik egin, eta bere baimenik gabe galdezka hasi zitzaizkien hango ikasle batzuei. Gure ustez, bada, ertzainek gainditu egin zituzten Herritarren Segurtasuna Babesteko Legean ezarritako mugak, eta kezagileak, bestalde, zentroko zuzendariari dagozkion eginkizunak bete baino ez zuen egin; horrenbestez, alde horretatik ez zegoen inolako arrazoinik Herrizaingo Sailak zehatze prozedurarik ireki ziezaión. Bestalde, Hezkuntza Sailak jakinarazi zigun interesatuari

eskatua zuen espedientearen kopia ez ezik, haren defentsarako burututako jardunen berri ere eman ziola. Herrizaingo Sailaren erantzunean, ordea, zehatze prozedura bakarrik aipatzen zen, baina ez zen ezer esaten ertzainak zentroan sartzeaz edo zuzendariari emandako tratua. Beraz, berriro jo genuen Herrizaingo Sailera, puntu horien inguruko informazioa ere lortu nahian, baina txosten hau bukatzeaz daukagula, ez dugu haren informaziorik jaso.

## ZABOR BILKETARAKO KAMIOIAK GAUEZ ATERATZEN DUEN ZARATA

Bilboko auzokide bat kezu zegoen zabor biltzetarako kamioiak etxean eragiten zizkon eragozpenegatik. Bera bizi den kalean bilketa zerbitzua goizaldeko ordu bat eta ordu biak bitartean egiten zenez, zaratak ia egunero iratzartzen zuen bi urteko alabatxo, eta nekez lokartzen zen berriro. Guk hala eskatuta, Udaleko Ingurumen Sailak neurketa bat egin zuen, zaborra biltzean Bilboko Ingurumena Zaintzeko Ordenantzako zarata maila gainditzen zen jakiteko. Emaitzak adierazi zuenaren arabera, gainditu egiten ziren erregelamenduan ezarritako mugak, beraz, alde horretako bilketa-orduak aldatzea erabaki zen. Interesatua ados zegoen proposatutako aldaketarekin, eta horrenbestez, gure lana bertan amaitutzat jo genuen.



*El Correo en argazkia*

## HAUR ETA IKASLEENTZAKO GARRAIOETAN NAHITAEZKOA DA BIDAIA-ZAINDARIAK EGOTEA

Ikasurte hasieran, herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arabako errepide tarte batean (Abornikanotik Izarraraino) egiten zen eskolagarrarioan ez zelako zaindaririk joaten; gainera, dirudienez urtero gauza bera gertatu ohi da garai berean eta zenbait ibilbidetan. Hezkuntza Sailari informazioa eskaturik, azaldu zigun hutsaren berri izan orduko konpondu egin zuela, enpresa esleipendunari zerbitzua behar den moduan eman zezala eskatu. Kexagilea, haatik, kezkatu zegoen, hurrengo urteetan arazo bera gertatuko zen beldur, eta ulertzekoa zen, bidaiari luze horiek bigarren mailako errepideetan zehar egiten direlako, eta erabiltzaileak urte gutziko haurrek direlako. Alde horretatik, ikasle eta haurren garraio-segurtasunari buruzko legeak nahitaezkoztat jotzen du zaindaria egotea, eta hala gertatu ezean, zerbitzua etenda uzteko aukera aurreikusten du. Bestalde, zerbitzua behar bezala ematearen ardura hezkuntza Administrazioari dagokio, baita

zeharka kudeatzen denean ere, enpresa baten bitartez, alegia. Hortaz, egoki iruditu zitzaigun sail horri betebeharrak gogoraraztea, prebentzio

eta kontrol neurri zehatzak eta eraginkorrak har ditzan eta aurrerantzean horrelako arazorik berriro gerta ez dadin.



*El Correoaren argazkia*

## ZIGOR EPAI BATEAN KONDENATUAREN NORTASUNA OKER EGIAZTATU ZELA-ETA, BESTE HERRITAR BATEN LOKALA BAHITU ZUTEN

Herritar batek Arartekoarengana jo zuen, Burgosko Zigor Epaitegiaren akats batek eragin zizkion kalteak salatzeko. Izan ere, organo horrek bere finka bat bahitzeko agindua eman zuen, izen-abizen berberak zituen beste pertsona baten aurkako epaia betearaztean. Kexagilearen initziz, bestelako daturik eskatuz gero -NANA, kasu- ez zen horrelakorik gertatuko. Auzian autonomia erkidego desberdinetako bi epaitegi esku hartu zuten, aurkeztutako kexa Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusira (AJKN) helarazi genuen, behar ziren neurriak har zitzan. Handik erantzun zenez, epaia betearazi zenean kondenatuak kaudimengabe aitortu zuen bere burua, eta horregatik haren izenean zeuden ondasun higiezin frogagiria eskatu zioten Jabetzaren Erregistroaren Elkargo Nazionalari.

Eskabidean, besteak beste, kondenatuaren izena, NANA, jaiotze lekua eta data eta azken helbidea ageri ziren. Erregistroak adierazi zuen bazeudela Bizkaian zenbait ondasun zigordunaren izenean, eta beraz, Epaitegiak finka bat bahitzeko agindu zuen, emate eta finka jabeak ageri zenari ere erabakiaren berri emanez. Kexagilea Gau eta eguneko Epaitegira bertaratu zen, izen-abizen berberak izan arren kondenatua beste bat zela argitzearen. Hala zela frogatu zenean, bahimendua baliogabetu egin zen, baina AJKNk adierazi zuen Epaitegiak ez zuela arduragabe jokatu, eta akatsa Jabetzaren Erregistroan gertatu omen zenez, espediente artxibatuta gera zedin proposatu zuen. Guri egoki iruditu zitzaigun Erregistroari AJKNren iritzia berri ematea, aurrerantzean antzekorik gerta ez zedin,

baina erregistroaileak erantzun zuen NAN zenbakia derrigor agertu beharrezkoztat jotzen duen arau geroago hasi zela indarrean, eta horregatik ez zela datu hori jasotzeko. Hala ere, Erregistroak bahitutakoaren ematearen izena jakinarazi zion Epaitegiari, eta datu hori NAN zenbakia baino argigarriagoa zen, ordura arteko datuen arabera ez baizen gertatu bi senar-emazte izen-abizen berberak edukitzea. Hortaz, bada, erregistroaileak ez zuen onartzen AJKNk egotzi zion erantzukizuna. Geuk ere uste dugu beste datu batzuk erabiliz gero ez zela horrelako hutsik gertatuko, baina iruditzen zaigu, era berean, prozeduran parte hartu zuten bi organoek bazitela erabilitako datuak egiaztatzenik.

## BONO-TAXIA: ADIN MUGA ETA MUGIKORTASUN ARAZOAK

Gasteizen bizi den herritar bati bono-taxi izeneko garraiobide-laguntza kendu zioten 70 urte bete zituenean, nahiz eta mugikortasun arazoengatik ezin zuen garraiobide publikorik erabili. Araban

bono-taxia Aldundiaren programa baten ekimena bada ere, kudeaketa Udalaren esku dago. Gasteizen, bono-taxia eskuratzeko baldintzetako bat 65 urtetik gorakoa ez izatea da, baina muga hori 70

urtekora igo daiteke eskatzaileak gurpil-aulkia erabiltzen badu edo ibili ahal izateko makilez baliatu beharra badu ezinbestean, eta horixe zen, hain zuzen ere, Arartekoarengana jo zuen pertsonaren egoera. Ohartu ginen udalaren erabakiaren atzean zegoen irizpide orokorrak herritar asko uzten zituela laguntza hori gabe, eta mugitzeko arazo larriak izan arren ez ziela beste aukerarik ematen. Bestalde, Aldundiak Arabako beste udal batzuekin sinatutako hitzarmenetan ez zen adin-mugarik jasotzen baldintza gisa. Aldundiari galdeturik, bi erregelamendu mota zeudela erantzun zigun: haietako bat hiri izaera nagusia duten udalentzakoak, eta bestea, ordea, garraiobide publiko gutxiago duten landa aldeko udalei zuzendua. Adierazi zitzaigun, halaber, Aldundiak programa egokitzeko asmoa zuela, ahalik eta udal gehienetara zabaltzeko eta, adin mugaren baldintza ezabaturik, laguntzen tamaina eskatzailearen mugikortasun arazoaren eta errenta mailaren arabera zehazteko. Proposamen horiek egoki iruditu zitzaizkigula-eta, erantzunean egokitzapena lehenbailehen egitea gomendatu genuen.



*El Correo en argazkia*

## AZOKETAN URDAI-GAIEN SALMENTAK BALDINTZA EGOKIAK BETE BEHAR DITU

Gaiarekin zerikusia duten udaletara eta Osasun Sailera jo ondoren, elkarre batek bere kexa azaldu zion Arartekoari. Elkarre horrek salatzen zuenez, urdai-gaiak azoketan saltzeko moduak apurtu egiten zuen "hotzaren katea" delakoa, jaki horietan behar-beharrezkoa dena, hain zuzen. Horrelakoan salmenta-

kontrola eta zaintza udalen eskumena den arren, gure iritziz bazegoen kexa hori Osasun Sailera eramateko arrazoirik. Guk ere uste genuen udalei jakinarazi behar zitzaizela nolako baldintzak bete behar ziren hotzaren katepeko jakien salmenta ibiltarian, eta beraz, EUDELen laguntzaz jakinarazte-lan hori bete zezan gomendatu

genion sailari. EUDELangana ere jo genuen informazio eske, jakin nahi baikenuen zer egingo zuen bere kideek neurriak har zitzaizaten eta salatutakoa bezalakorik berriro gerta ez zedin.

## IRISGARRITASUNARI BURUZKO ARAUETAN JASOTAKO KONTROL NEURRIAK ERABILI BEHARRA

Europako ezgaituen urtea zela eta, Arartekoak txosten bat aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean: Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publiko duten eraikinen irisgarritasuna. Txosten horretako azterketaren bitartez hausnarketa eta eztabaida bultzatu nahi izan ditugu, ezinduen aukera-berdintasunerako behar diren neurrien gainean. Txostenean ageri diren ondorio adierazgarrietako batek erakusten duenez, herri-administrazioek oso gutxitan erabiltzen dituzte irisgarritasunari buruzko araudietan jasotako kontrol tresnak, arauok zenbateraino

betetzen diren neurtzeko ezarriak, hain zuzen. Datu horrek bat egiten du, gainera, irisgarritasunari buruzko arauak behar bezala betetzen ez direla salatzen duten keza ugarirekin. Ildo beretik doaz norbanakoez eta elkarteek aurkeztutako kezak: ezinduentzat gordetako aparkalekuak maiz mugikortasun arazorik ez duten herritarrek erabiltzea; igogailua ez dabilelako ezin iritsizko gertatzen zaizkien aparkalekuak; komun egokiturik ez duten hotelak eta jatetxeak; babes ofizialeko erreserbako etxebizitza iritsi ezinak; ireki berriak izan arren irisgarritasun baldintzak

betetzen ez dituzten saltokiak... Hartara, ondorioztatutako datuek adierazten dute herri-administrazioek ez dutela betetzen irisgarritasunari buruzko araudietan aurreikusitakoa, eta Arartekoaren ustez, ingurune fisikorako irispideak eta komunikazioa erraztu nahi badira -berreziki arazoak dituzten pertsonen kasuan- beharrezkoa da indarrean dauden irisgarritasun-arauak benetan betearaztea. Batez ere udalek egin behar dituzte ahalegin handienak, ikuskaritza zerbitzuak indartzuz, partikularren jarduerak behar bezala kontrolatuz eta ikuskatuz, eta legezketasuna berrezartzeko eta arau-hausteak zehatzeko tresnak irmo aplikatuz, irisgarritasuna bultzatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean jasotakoaren arabera. Azkenik, tokiko agintariei ohartarazi egin behar zaie arauak zer agintzen dien: aurreikusten den salbuespenezko prozedura ezarri udal lizentzia ematen duten aldi guztietan, horren berri eman behar diote Euskadiko Irisgarritasuna Sustatzeko Kontseiluari.



El Correo en argutia

## URBANIZAZIO PRIBATUEN MANTENTZE-LANA ERABILERA PUBLIKORAKO ZORRA DAGOEN KASUETAN

Gure hiri-herrietako urbanizazio askok, pribatuak izan arren, interes publikoaren zerbitzuan daude, atsedeen-leku, gune ireki edo gune berezietan arteko pasabide gisa ere erabiltzen baitira. Horrelakoetan, arazoak sortu ohi dira urbanizazioaren mantentze gastuak edo erabilera publikoak eragindako kalteak noren lepotik ordaindu behar diren erabakitzean. Gorabehera horiek desadostasunak ekartzen dituzte maiz administrazio publikoen eta auzokideen elkarteetan. Izan ere, ondasun pribatu baten gainean erabilera publikorako zor bat eratzen denean, edo bide zein egonaldi zorra arautzeko klausulak interpretatzerakoan, ez da argi geratzen nolako beharrak erortzen diren udalarentzat, eta hortxe datza arazoaren muina. Azalduetako kasuak aztertutik,

Arartekoak uste du udalek arautu egin behar dituztela erabilera publikoko zorrek dakartzaten mantentze ardurak. Zehazki, udalei zoladura eta hiri-altzariak garbitzea dagokie, ez ordea, fatxada, paramentu eta sabaien garbiketa. Helburu hori gogoan, beharrezkoa da gune horietarako gutxieneko garbiketa-baldintzak zehaztea, udalaren garbiketa zerbitzuen ohiko jardueran oinarrituz. Udalak bere gain hartu behar ditu pasabideetan ikusgarritasun egokia ziurtatuko duten zerbitzuak (farolak eta ataripeetako argi-puntuak) ezartzea eta mantentzea, hala nola hondatutako hiri-altzariak (bankuak, zakarrontziak...) aldatzea. Halaber, lorategirik badago, era egokian mantenduko ditu, udalerriri osoan erabiltzen diren neurrien eta ereduaren arabera. Hondatuta egoteagatik

oinezkoen pasabideetatik eroso ibiltzea eragozten dieten egiturazko elementuak ere konponduko ditu, baita segurtasunerako elementu laguntzaileak (eskudelak) mantenduko ere. Jabeen elkarteek dagokienez, eraikineko egiturazko elementuak zaintzeaz gain, saneamendurako sareak eta euri-uretarakoak mantenduko dituzte sare-nagusiarekiko lotuneetara arte, eta kalteturiko elementuak (kutxetak eta hustubiak) aldatuko dituzte. Aurrekoaz gain, jabeek dagokie hometako graffitiak eta bestelakoak kentzeko ardura, udalak herriko beste lekuetan horretarako dituen lan-ereduak gorabehera.

## ZERGEN KUDEAKETA: ORAINGO EREDUETAKO BEREZITASUNAK ARAUTU BEHARRA

Herritarren parte-hartze aktiboa gaur egungo zerga sistemaren oinarrietako bat da, hau da, zorrak ordaintzeaz gain, zergadunak bere egoera ekonomikoagatik dagozkion betebeharreri eta eskubideei eutsi behar die. Halaber, administrazioak luzatzen dizkion errekerimendu ugari ere erantzun behar die, eta horren ondorioz, herritarren egoera juridikoa iraganekoa baino askoz nahasiago bihurtu da. Esandako parte-hartze aktiboaren ezaugarriak adierazgarrietako bat kudeaketa-prozeduraren hasieran bertan dago, zergadunak berak ekin behar baitio, bere autoliki-dazioa aurkeztuz. Hala ere, zerga batzuk gero eta konplexuagoak dira, araudiak ere gero eta gehiago, eta horren ondorioz, zergadunak bere

eginkizunak betetzeko beharko lituzkeen ezaguera tekniko-juridikoak gehiegizkoak dira, batez ere Administrazioak informazio egokirik eskaintzen ez badu. PFEZi dagokionez, BAEko hiru lurralde historikoek nahiko finkatuak dauzkate zergadunarentzako laguntza-zerbitzuak: Rent@raba, Rentanet eta Errenta mekanizatua. Dena den, sistema horiek oso zabalduak badaude ere, foru ogasunek ez dituzte araudi osatu batean bildu; beraz, gure iritziz, foru administrazioek behar den araugintzari ekin beharko liokete, alderdi interesatuetako bakoitzaren egoera juridikoa zehaztuz eta legerian jasotako printzipioak eta bermeak ziurtatuz, bereziki onustea eta segurtasun juridikoa, bi printzipio horiek ez

baitute eskuratu, oraindik ere, zor zaien begirunea. Eremu juridiko berrian administrazioak zenbait arau mota sortzeko ahalmena beharko luke. Berandutza-korrituak, haatik, ez lirateke segituan ezarri beharko: egindako arauen mende egongo lirateke, eta deuseztatu ere egingo lirateke administrazio-organo baten akatsak zuzendu beharko balira. Zehapenei dagokionez, gure iritziz zehapen prozedura orotan -baita zerga alorrekoan ere- erugabetasun ustea ezarri beharko litzateke, beraz, administrazioak izango luke errua frogatzeko ardura, eta ez administrazioak bere erugabetasuna argitzekoa.

## TRAFIKOAREN, IBILGAILU MOTORDUNEN ETA BIDE SEGURTASUNAREN ALORREAN AURRETIAZ TAXUTUTAKO EREDUAREN BITARTEZ TRAMITATZEN DIREN ZEHATZE PROZEDURAK: ZENBAIT ARAZO DEFENTSARAKO ESKUBIDEAREN INGURUAN

Arartekoak bere kezka agertu nahi du trafikoaren, ibilgailu motordunen eta bide segurtasunaren alorrean tramititzen diren zehatze prozedurak direla eta, tramitazioa aurretiaz taxututako ereduaren bitartez gauzatzek murriztu egiten baititu interesatuei dagozkien bermeak eta eskubideak. Izan ere, edozein prozeduratan erabiltzeko moduko esamolde orokor eta estereotipatuak baliatzean, bakarrik ziurtatzen da erantzun formal bat interesatuak egiten dituen galdekizunetarako, baina ez dira

bermatzen bestelako eskakizunak, alegia, Konstituzioak aitortzen duen defentsarako eskubidetik datozenak. Arartekoak 2002ko txostenean bertan azaldu zuenez, trafikoaren alorreko zehatze prozedurengatik jaso ziren keza askoren atzean, tramitazio aldiaren erabilitako eredu berdinen arazoa zetzan. Aurtengoan ere antzeko kezak aurkeztu dira eta, horregatik, egokia iru ditu zaigu gomendio orokor bat egitea. Gure ustez, bai administrazio orokorrak bai toki administrazioek ziurtatu

egin behar dute trafiko alorrean tramititzen dituzten zehatze prozeduretan errudun jotakoaren defentsarako eskubidea errespetatzen dela, Konstituzioak eta legeek helburu horrekin ezarritako bermeak betez, hain zuzen. Alde horretatik, berebiziko garrantzia du ondoko neurriekiko begiramenak:

- Errudun jotakoaren alegazioak aintzat hartu, eta ezestekotan, erabakia arrazoitu.
- Interesatuak proposatzen dituen frogak aintzat hartu behar diren ala ez baloratu; frogak onartu ala ukatzeko erabakia adierazi egin beharko da.
- Prozeduren gaineko ebazpenak modu egokian arrazoiturik eman behar dira. Horretaz gain, ebazpenak agertu diren kontu guztien gaineko iritzia azaldu behar du, baita zehapenaren tamaina arrazoitu ere.
- Ebazpenaren aurka ezarritako helegiteak ere erabaki arrazoitua jasoko du.
- Zioen atalean, hartutako ebazpenerako arrazoi berri emango da.



El Correoaren argazkia